



## 45. OSOKO BILKURAKO AKTA

Zumaiako herrian, 2011ko uztailaren 28an, arratsaldeko zazpietan, udaletxe honetako batzar aretoan Udalbatza eratu da presako bilkura berezia egiteko, aurrez zehaztutako eguneko aztergaien arabera. Garaiz eta zuen deitu direlarik, Udalbatzako kide hauek bertaratu dira:

**Lehendakaria:** Iñaki Agirrezabalaga Alkorta jn.

**Bertaratutako zinegotziak:**

Azis Alberdi Zaldunbide jn.

Iñaki Ostolaza Esnal jn.

Arritokieta Gonzalez Elosua and.

Eneko Agirre Maiora jn.

Maitane Agirre Arrieta and.

Montse Arana Perez and.

Edurne Egaña Manterola and.

Juan Carlos Cendoya Aizpurua jn.

Ana Arranz Irigoyen and.

Isidro Fernandez Echave jn.

Aitor Leiza Alberdi jn.

Emiliano Cabañas Gonzalez jn.

**Idazkaria:** Gorka Urgoiti Agirre



## EGUNEKO AZTERGAIAK

### 1.- Aurreko bileretako aktak onartzea, bidezkoa bada (2011-06-11 eta 2011-07-14)

Alkate jaunak bilkura eratutzat eman du. Lehenik, plenoaren ezohiko eta presazko izaera berretsi beharra dagoela gogorarazi die bertaratutako zinegotziei. Talde politiko guztiak aho batez bilkura aurrera eramateko adostasuna adierazi dutenez gero, Alkateak eguneko aztergaiei ekiteko agindua eman du.

**Aurreko bilkuretako akten onarpenari** dagokionez,

Montse Arana andreak (EAJ-PNV) uztailaren 14ko aktaren bigarren eta hamargarren orrialdeetan haien talde politikoa izendatzerakoan EAJ-PNV izena ager dadila eskatu du, PNV izena soilik izan beharrean. Azkeneko eta hamaikagarren orrialdetan abuztua *inhabil* edo baliogabetzat jo beharrean, balioduna edo habila izanik aktan hala jaso dadila eskatu du.

Emiliano Cabañas jaunari (PSE-PSOE) deigarria egiten zaio udalbatzaren osaketa-bilkuraren akta osoa euskara hutsean egotea eta horrek ez du islatzen bilkura haren bilakaera. Zortzi urtetan inoiz ez du aktarik euskara hutsean ikusi.

ALKATE jaunak, Bilduren izenean, adierazi du EAJ-PNVrekin elkarritzetatu ondoren, aurreko legealdian ez bezala hemendik aurrera udalbatzako bilkuren aktek ez dutela literalki hitzez hitz esandakoa jasoko, taldeen iritzien laburpen bat baizik, eta ondoren bozketaren emaitza.

Proposamen honekin adostasuna adierazi dute talde politiko guztiak.

### 2.1.- 2010. urteko kontu orokorraren onarpena, bidezkoa bada

Ogasuneko batzordeburu Arritokieta Gonzalez andreak, tramitearen derrigorezkotasunaz ohartarazi du Herri-kontuen Euskal Epaitegiak hala eskatzen duelako. Gainera, alegaziorik ez izanagatik ere, zinegotziek bozkatu beharra dute.

Udalbatzako gainontzeko taldeek ez dute ezer esateko eta, hortaz, bozkatzeari ekin diote.



## ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: **13 boto** ( 6 BILDU; 5 EAJ-PNV ; 1 PSE-EE/PSOE; 1 ARALAR)

Aurkako botoak: **0 boto**

Abstentzioak: **0 boto**

**Erabakia:** 2010. URTEKO KONTU OROKORRA AHO BATEZ ONARTZEA.

### 2.2.- Udaleko 2011. urteko 6. kreditu aldaketaren onarpenaren baliogabetzea onartzea, bidezkoa bada

Arritokieta Gonzalez andreak (BILDU) 2011ko uztailaren 26ko ogasun batzordearen irizpena irakurri du, udaleko 2011. urteko 6. kreditu aldaketaren onarpena baliogabetza proposatzen duena, hain zuzen ere. Kreditu aldaketa hartan partida batzuk konprometituta zeuden, baina kontabilizatu gabe eta, beraz, ezin ziren erabili; hori dela eta, kreditu aldaketa hora baliogabetza proposatzen da.

Edurne Egaña andreak (EAJ-PNV) adierazi duenez, harrigarritzat jotzen dute halako akats administratiboa, kreditu aldaketa egitea konprometituta zeuden partidekin, alegia. Frontoiaren BEZari aurre egiteko eta prudentzia-printzipioari jarraiki kreditu aldaketa hora egitea beharrezkoa zen, frontoiaren kontratua berehala esleituko zelako. Batzordean eskatu zuten kreditua atxikitzea ez zedin gertatu gero diru faltan ibiltzea, eta zorionez, ahal zen kopuruan hala egin da.

Emiliano Cabañas jaunak (PSE-PSOE) adierazi du kreditu aldaketa hori, errore bat baino gehiago, bidezkoa ez den nahitako edo ez nahitako erabakia izan dela. Ez du uste, aurreko kontu-hartzialeak horrelakorik egin izana eta antolaketa ezaren ondorioa denik. Hemen bestelako jarduera egon da, onarpenaren ondoren kontrolik gabe dirua xahutzearena hain zuzen ere. Halere, hau guzta zuzendu ahal izanak lasaitu egiten du. Non geratuko litzateke bestela administrazio honek bere diruarekiko duen kontrola?

Arritokieta Gonzalez andreak (BILDU) errorea izan dela berretsi du, eta gainera hori saihesteko neurriak jarri direla.

Jarduneko kontu-hartziale Zigor Egia jaunak, kreditu bat erabili behar denean gastu bat egiteko kontratazioren batean edo inbertsioren batean departamentu bakoitzeko arduradunak kontu-hartzaietan eskatu behar duela argitu du. Ondoren, diru kopurua partidetatik hartu eta kreditua atxikita geratzen da, hau da, udal-kontabilitatean jasota. Nolanahi ere, kasu honetan



ez zela kontabilitatean garaiz islatu eta horrek pentsarazi ziela kreditu horiek aske zeudela. Presarekin kreditu aldaketa egin zela eta horrek eragin zuela akatsa, baina hemendik aurrera hori gerta ez dadin neurriak hartu direla.

Eta besterik gabe, bozkatzeari ekin diote.

### **ERABAKI ZATIA**

Aldeko botoak: **13 boto** ( 6 BILDU; 5 EAJ-PNV ; 1 PSE-EE/PSOE; 1 ARALAR)

Aurkako botoak: **0 boto**

Abstentzioak: **0 boto**

**Erabakia:** UDALEKO 2011. URTEKO 6. KREDITU ALDAKETAREN ONARPENAREN BALIOGABETZEA AHO BATEZ ONARTZEA.

### **2.3.- Zumaia udalak Zumaia Lantzen, S.A.ri epe motzerako mailegua ematea, bidezkoa bada**

Arritokieta Gonzalez andreak (BILDU) irizpena irakurri du, non 925.000 €-ko mailegua ematea proposatzen den. Gainera, EAJ-PNVk uztailaren 18ko ogasun batzordean egin zuen eskaerari jarraiki sailetan kreditu murrizketak egiten saiatu direla adierazi du. Hori egiterik ez zegoenez gero, eta kontuan izanik erabaki politikoa hartu behar dela, BILDUk erabaki duela epe laburreko kreditu baten modura ematea Zumaia Lantzeni diru kopuru hori.

Edurne Egaña andreak (EAJ-PNV) batzordeetan esandakoa berresteko asmoa duela azaldu du. Izañ ere, Zumaia Lantzenek epe laburrera mailegua ezin duela itzuli nabaria denez, operazio hau soilik egingo balitz, derrigorrez plenoak ezezkoa eman beharko lioke. Badirudi, gainera, epe laburreko maileguak epe luzerako izango den beste batengatik ordezkatzea aurreikusten dela, baimenak lortuz gero. Zumaia Lantzenek gaitasuna izango duen epe luzerako mailegua gehi aurreko milioi bat eta bostehun mila euroak itzultzeko ez dute informazio nahikorik. Honetaz guztiaz gain, eta aurten bertan epe luzera bihurtu diren beste bi mailegu epe laburrekoak kontuan izanik, guztira lau milioiko zorra izango luke Zumaia Lantzenek. Inolako bideragarritasun planik ez ezagutzeak eta txosten ekonomikorik ez edukitzeak oinarrituko dute euren abstentzioa. Halere, ez dute oztopo izan nahi eta "konstruktiboak" izan nahi dute Zumaia Lantzen salbatzeko. Azken finean maileguaren itzulketa karga bat da Zumaia Lantzenen kontuetan, nahiz eta Udaleko kontuetan ez azaldu. Horregatik, hobeto ikusten dute Narruondoko zubiaren kontura zorrak kitatzea, beste mailegu bat eman beharrean. Bestetik, 925.000 €-ak diruzaintza gerakinetatik ateratzen direnez ("puntas de tesorería"), informazio gehiago nahiko lukete nola sartzen diren,



Udalaren diruzaintza plangintza eta abar ezagutze aldera. Diruzaintza gerakinetik ateratzeak ez du gastua murrizten denik, eta departamentu batzuek %100 exekutatzeko asmoa dutenez desfasea gerta liteke altxortegiaren eta aurrekontuaren artean. Hau guztia dela eta, abstentzioa emango dute.

Emiliano Cabañas jaunak (PSE-PSOE) esan duenez, epe luzerako maileguak bihurtuko diren epe laburreko maileguak emateko ohituraarekin bukatu beharko luke Udalak eta Zumaia Lantzenen errealitatea onartu beharko luke behingoz. Ez du ulertzen zergatik behar den beste bideragarritasun plan bat ("plan de viabilidad") aurrekoa baliogabetuz. Zergatik mozarrotu epe laburraz izatez epe luzerako mailegua den zerbait? Zergatik ez dira kontuak mahai gainean jartzen eta egoera konpontzen? Zumaia Lantzenen arazoak azken finean Udalaren arazoak dira. Hortaz, jakin nahi luke, plana ezagutu gabe, azkenean epe laburrera edo luzerakoa jarriko den, zeren laburrera jartzen bada gure burua engainatzen arituko ginateke eta baita Aldundiari ere, eta luzerako mailegu bat ezin dugu epe laburreko mailegu bezala aurkeztu. Hori guztia dela eta, norbaitek galdera horiei erantzutea eskatzen du.

Aitor Leiza jaunak (ARALAR) batzordeetan behin baino gehiagotan esan duten bezala, adierazi du arazo horiek guztiak Zumaia Lantzenen desagerpenarekin konponduko liratekeela. Udalak ez daki askotan Zumaia Lantzenek ateratzen dituen zenbaki mordo horiek nondik ateratzen diren. Aurrerantzean batzordeetan Zumaia Lantzenen etorkizunaz tratatzea espero du. Zumaia Lantzenekin ados ez dagoelako abstentzioa emango du.

Arritokieta Gonzalez andreak (BILDU) adierazi du Odietak eragiten duela presa. Izan ere, Odietak geldituko balitz Zumaia Lantzenek diru sarrerarik ez luke izango eta ondoriozko kalte-ordinak eta abar. Hortaz, orain Zumaia Lantzenen berehalako arazoa konpondu eta irailean denen artean egoera zein den aztertu eta modu ordenatu eta teknikoki egokienean erabaki bat hartu beharko dute, gelditzeko edo ixteko, alegia.

Alkate-lehendakari jaunak argitu du epe laburreko maileguaren helburua dela Odietari berehalako konponbidea ematea.

Kontu-hartzailak, Zigor Egia jaunak, Emiliano Cabañas jaunari zehaztu nahi dio Bideragarritasun plana egitea Zumaia Lantzeni dagokiola, baina ematen zaien mailegua nola bueltatuko duten argitzeko lehenbizi markatu beharko da epe luzerako behar duten diru kopurua. Hori zehazteko aldagai asko hartu beharko dira kontutan eta horretaz gain, Aldundiaren oniritzia. Orain, behintzat, egia da ez dutela datu zehatzik ez baitakite zenbat diru kopuru behar duen Zumaia Lantzenek. Asmoa da, epe motzerako mailegua lortzea Udaletik eta urte bukaeran beste mailegu bat eskatzea Udalaren abalarekin eta Aldundiaren baimenarekin. Maileguarekin udalari zor dion guztia ordaintzeko.

Edurne Egaña andreak (EAJ-PNV) esan du Odietako obrak gelditzea ekidin nahi dela, baina 925.000 €-ko beste maileguarekin Udalarekiko Zumaia Lantzenen zuloa handitzea besterik ez du eragingo eta, euren iritzian, zuloa ez handitzearren hobe da zubiaren kontura zorra kitatzen joatea. Mailegu bat



eman beharrean zubiarekin zorra kitatzea, hain zuzen ere. Bestetik, Aralarri erantzunez, Zumaia Lantzenen arazoa dela bere jarduera oinarritzen duen negozioa porrot batean egotea, ez duela etorkizunik, alegia. Etxegintza negozioa Udalak zuzenean edo Zumaia Lantzenek kudeatzea ez da arazoaren gakoa.

Ondoren, bozkatzeari ekin diote zinegotziek.

## ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: **6 boto** (BILDU)

Aurkako botoak: **0 boto**

Abstentzioak: **7 boto** ( 5 EAJ-PNV ; 1 PSE-EE/PSOE; 1 ARALAR)

**Erabakia:** ZUMAIKO UDALAK ZUMAIA LANTZENI EPE MOTZERAKO MAILEGUA EMATEA GEHIENGO SOILEZ ONARTZEA.

## 3.- LANGILEEN LANPOSTUEN ZERRENDAREN ALDAKETA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.

Personaleko batzordeburu Iñaki Ostolaza jaunak 2009ko Langileen Lanpostu zerrrendan aldaketa batzuk egitea proposatzen dutela dio. Batetik, aurreikusita dauden etxez etxeko laguntzaileen hiru plaza horietatik pertsona batek erretiroa edo baja eskatu du, eta, bide batez, plaza hori amortizatzea proposatzen dute. Bestetik, Lanpostu zerrrendan Turismo bulegoko administrari laguntzaile lanpostu bat eta Turismo eta Merkataritza Teknikari laguntzaile bat daude, proposatzen dutena zera da, administrari laguntzailea amortizatzea eta Turismo eta Merkataritza Teknikari laguntzaile lanpostu bat sortzea, alegia, Lanpostu zerrrendan bi Turismo eta Merkataritza Teknikari laguntzaile geratuko lirateke. Horiekin lotuta proposatzen dute, bai bi lanpostu horiek, Turismo eta Merkataritza Teknikari laguntzaileak, eta Kultura Teknikari laguntzaileak lanpostuen balorazio prozesuan jasotzen den bezala, hamabigarren mailatik bederatzigarren mailara jaistea. Bukatzeko, egun aurreikusita dagoen bi ofizial plaza betetzeko lehiaketa librearen ordez aukera ematea plantillan dauden langileei barne promozioz lanpostu horiek betetzeko.

Besterik gabe, bozkatzeari ekin diote zinegotziek.



Zumaiako Udala

2011IAKU0010

## ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: **13 boto** ( 6 BILDU; 5 EAJ-PNV ; 1 PSE-EE/PSOE; 1 ARALAR)

Aurkako botoak: **0 boto**

Abstentzioak: **0 boto**

**Erabakia:** LANGILEEN LANPOSTUEN ZERRENDAREN ALDAKETA AHO BATEZ ONARTZEA.

## 4.- KIROLAK.- IRABAZIAK LORTZEKO ASMORIK GABEKO KIROL ELKARTE ETA TALDEEI ZUMAIA.NET DIRU-LAGUNTZAK ARAUTZEKO OINARRIAK ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.

Iñaki Ostolaza jaunak, Kiroletako batzordeburu den aldetik, adierazi du trimitazio hutsa dela plenora ekartzen duten gai hau. Izan ere, Zumaia.net-eko laguntzak, alegia, araututa dauden laguntzak lortzeko, baldintzak bereziak plenotik pasa behar direla eta gero aldizkari ofizialean (bulletinean) aurkeztu eta epe baten ondoren, eskariak edo proposamenak aurkeztu daitezke. Hortaz, tramite hori gauzatzea soiliik da proposatzen dutena .

Ondoren, bozkatzeari ekin diote zinegotziek.

## ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: **13 boto** ( 6 BILDU; 5 EAJ-PNV; 1 PSE-EE/PSOE; 1 ARALAR)

Aurkako botoak: **0 boto**

Abstentzioak: **0 boto**

**Erabakia:** IRABAZIAK LORTZEKO ASMORIK GABEKO KIROL ELKARTE ETA TALDEEI ZUMAIA.NET DIRU-LAGUNTZAK ARAUTZEKO OINARRIAK AHO BATEZ ONARTZEA.

Eta eztabaidezko beste gairik ez dagoenez, alkate-lehendakariak bilera amaitutzat eman du, gaueko zortziak eta hamar direnean eta nik, Idazkariak, fede ematen dut,

Alkateak,

Idazkariak



## ACTA DE LA SESIÓN PLENARIA Nº45

En la villa de Zumaia siendo las diecinueve horas del día veintiocho de julio de dos mil once, se constituye en el Salón de Sesiones de ésta Casa Consistorial el Ayuntamiento Pleno, al objeto de celebrar sesión extraordinaria urgente con arreglo al orden del día previamente señalado y a la que habiendo sido citados en tiempo y forma, acuden los siguientes miembros de la Corporación:

**Presidente:** Sr. Iñaki Agirrezabalaga Alkorta

**Concejales:**

Sr. Azis Alberdi Zaldunbide  
Sr. Iñaki Ostolaza Esnal  
Sra. Arritokieta González Elosua  
Sr. Eneko Agirre Maiora  
Sra. Maitane Agirre Arrieta  
Sra. Montse Arana Pérez  
Sra. Edurne Egaña Manterola  
Sr. Juan Carlos Cendoya Aizpurua  
Sra. Ana Arranz Irigoyen  
Sr. Isidro Fernandez Echave  
Sr. Aitor Leiza Alberdi  
Sr. Emiliano Cabañas González

**Secretario:** Sr. Gorka Urgoiti Agirre



## ORDEN DEL DÍA

### 1.- Aprobación si procede, de las actas de las sesiones anteriores (11-06-2011 y 14-07-2011)

El Sr. alcalde ha constituido la sesión para acto seguido explicar que para poder celebrarse el pleno en primer lugar se ha de ratificar la urgencia del mismo. Todos los grupos políticos sin excepción ratifican la urgencia y muestran su disposición a que se celebre el pleno. El Sr. alcalde da comienzo a la sesión.

#### **En lo referente a la aprobación de las actas anteriores:**

La Sra. Montse Arana (EAJ-PNV), ha solicitado que en el acta del 14 de julio, en la página 14 se haga una modificación y que al nombrar a su grupo aparezcan las siglas completas, EAJ-PNV en lugar de sólo PNV tal y como aparece. Solicita asimismo que se corrija el error que aparece tanto en la página nº 11 como en la última en las cuales se dice que agosto es inhábil, cuando en realidad es hábil, de modo que solicita la corrección.

El Sr. Emiliano Cabañas (PSE-PSOE), considera extraño que el acta de la sesión constitutiva del Ayuntamiento esté íntegramente en euskera, ya que eso no refleja en su opinión el desarrollo de aquella sesión. Durante ocho años nunca se ha visto el acta únicamente en euskera.

El Sr. alcalde, ha manifestado que tras hablar del tema con EAJ-PNV se ha decidido que a diferencia de la legislatura anterior en adelante las actas no serán literales sino que serán recogidas de forma sucinta, haciendo un resumen de las intervenciones de los ediles y recogiendo las votaciones a continuación.

Todos los partidos han mostrado su conformidad con esta propuesta.

### **2.1.- Aprobación, si procede, de la cuenta general de 2010**

La Sra. Arritokieta Gonzalez, presidenta de La Comisión de Hacienda aclara la obligatoriedad de trámite, porque así lo requiere el TVCP. A pesar de que no haya alegaciones los ediles están obligados a votar.

Dado que nadie toma la palabra se pasa directamente a la votación



## PARTE RESOLUTIVA

Votos a favor: 13 ( 6 BILDU; 5 EAJ-PNV ; 1 PSE-EE/PSOE; 1 ARALAR)

Votos en contra: 0

Abstenciones: 0

### **SE APRUEBA POR UNANIMIDAD LA CUENTA GENERAL DE 2010.**

#### **2.2.- Aprobación, si procede de la revocación de la aprobación de la modificación de crédito nº 6 de 2011**

La Sra. Arritokieta González (BILDU), ha dado lectura al dictamen de la Comisión de Hacienda del 26 de julio de 2011. En dicho dictamen se propone la revocación de la modificación de crédito nº 6 porque había unas partidas comprometidas pero sin contabilizar, de modo que no se podía disponer de las mismas.

La Sra. Edurne Egaña (EAJ-PNV) manifiesta su extrañeza por semejante error administrativo. La modificación de crédito era necesaria para hacer frente al IVA del frontón, siguiendo el principio de prudencia ya que el frontón era de adjudicarse en breve.

El Sr. Emiliano Cabañas (PSE-PSOE) considera que la modificación de crédito más que un error ha sido una decisión obligada pero injusta. No cree un asunto de falta de organización. En su opinión ha habido otro tipo de actuación, que después de la aprobación se ha gastado el dinero sin control. De todas formas le tranquiliza el hecho de que se haya podido corregir a tiempo. ¿Dónde quedaría sino el control que esta Administración ejerce sobre el dinero?

La Sra. Arritokieta González (BILDU), ha reiterado que ha sido un error, que afortunadamente se ha podido subsanar.

El Sr. Zigor Egia, interventor en funciones, aclara que efectivamente ha sido un error, porque los gastos comprometidos no se recogieron en la contabilidad a tiempo y eso les hizo pensar que los créditos estaban disponibles. La modificación se hizo con prisas y eso dio lugar al error pero ya se han tomado las medidas para subsanarlo.

Acto seguido se procede a la votación;



## PARTE RESOLUTIVA

Votos a favor: 13 ( 6 BILDU; 5 EAJ-PNV ; 1 PSE-EE/PSOE; 1 ARALAR)

Votos en contra: 0

Abstenciones: 0

### **SE APRUEBA POR UNANIMIDAD LA REVOCACIÓN DE LA MODIFICACIÓN DE CRÉDITO Nº 6 DE 2011**

#### **2.3.- Aprobación si procede de la concesión de un crédito a corto plazo a Zumaia Lantzen S.A.**

La Sra. Arritokieta González (BILDU), lee el dictamen en base al cual se propone conceder un préstamo de 925.000 € a Zumaia Lantzen. Manifiesta además que siguiendo la propuesta hecha por EAJ-PNV en La Comisión de Hacienda del 18 de julio han intentando hacer recortes en las partidas. Dado que ha resultado imposible, BILDU ha tomado una decisión política, es decir conceder un crédito a corto plazo a Zumaia Lantzen S.A. por la cantidad mencionada.

La Sra. Edurne Egaña (EAJ-PNV), comenta que tienen intención de ratificar la postura que tomaron en la comisión. Es decir, está claro que Zumaia Lantzen no puede devolver el préstamo a corto plazo. Parece que está previsto que este préstamo a corto plazo sea reemplazado por otro a largo plazo. No tienen suficiente información para saber si Zumaia Lantzen será capaz de devolver el préstamo a largo plazo además del millón y medio de euros que debe de antes. Además de todo esto y teniendo en cuenta los otros dos préstamos que siendo inicialmente a corto plazo han derivado en préstamos a largo plazo Zumaia Lantzen pasaría a tener una deuda de cuatro millones. Su abstención se basa en que no tienen ningún plan de viabilidad económica y ningún informe económico, pero no quieren poner trabas, y quieren ser constructivos para salvar Zumaia Lantzen. La devolución del préstamo es una carga para las cuentas de Zumaia Lantzen, aunque no aparezcan en las cuentas del Ayuntamiento. Por eso la mejor solución es pagar la deuda a cuenta del puente de Narruondo, en lugar de conceder otro préstamo. Por otra parte los 925.000 Euros salen de la remanente, en lo referente a ese punto quisieran tener más información, y conocer la planificación de tesorería del Ayuntamiento.

El Sr. Emiliano Cabañas (PSE-PSOE) comenta que el Ayuntamiento debería de acabar con la costumbre de conceder créditos a corto plazo que se convierten luego en créditos a largo plazo. No entiende por qué se necesita otro plan de viabilidad invalidando el anterior. ¿Por qué hay que ponerle el disfraz de corto plazo cuando es claramente un préstamo a largo plazo? ¿Por qué no se ponen las cuentas encima de la mesa y se da una solución a la



situación? Los problemas de Zumaia Lantzen son problemas del Ayuntamiento. Quisiera saber si al final el crédito será a corto o largo plazo porque si se decide que es a corto plazo estaríamos engañándonos tanto a nosotros mismos como a la Diputación Foral. Un préstamo a largo plazo no se puede presentar como un préstamo a corto plazo. Solicita que alguien responda a todas esas preguntas.

El Sr. Aitor Leiza (ARALAR), toma la palabra diciendo que tal y como ha reiterado en las comisiones, todos estos problemas se acabarían con la disolución de Zumaia Lantzen. El Ayuntamiento no sabe muchas veces de dónde salen todas esas cifras de Zumaia Lantzen. Espera que en adelante en las comisiones se trate el futuro de Zumaia Lantzen. Se abstendrá porque no está de acuerdo con Zumaia Lantzen.

La Sra. Arritokieta González (BILDU), argumenta que la prisa viene provocada por la situación de Odieta. Si se paraliza Odieta Zumaia Lantzen no tendría ingresos y eso daría lugar al pago de indemnizaciones etc. De modo que ahora lo que toca es solucionar este problema urgente y luego en septiembre habrá que sentarse para hacer un análisis de la situación y tomar una decisión de forma ordenada y que sea la más adecuada técnicamente.

El Sr. alcalde aclara que el objetivo del crédito a corto plazo es dar una solución urgente a Odieta.

El Sr. Zigor Egia, interventor en funciones, quiere hacer una aclaración a Emiliano y comenta que hacer el plan de viabilidad le corresponde a Zumaia Lantzen. Pero para que se aclare cómo van a devolver el préstamo que se les concede primero hay que marcar la cantidad que se les prestará a largo plazo. Para marcar esa cifra hay muchas variables a tener en cuenta y además hace falta el visto bueno de la Diputación. Es verdad que no hay datos concretos porque no saben qué cantidad exacta necesita Zumaia Lantzen. El plan es que ahora el Ayuntamiento le conceda un préstamo a corto plazo y luego a final de año que Zumaia Lantzen solicite otro préstamo a largo plazo con el aval de Ayuntamiento y el permiso de la Diputación, para que con ese préstamo pueda devolver al Ayuntamiento todo lo que le debe.

La Sra. Edurne Egaña (EAJ-PNV), argumenta que se quiere evitar la paralización de las obras de Odieta, pero con este otro préstamo de 925.000 euros, lo único que se consigue es que la deuda de Zumaia Lantzen vaya en aumento, y en su opinión a fin de que eso no ocurra lo mejor es pagar la deuda a cuenta del puente. Por otro lado y respondiendo a ARALAR el problema de Zumaia Lantzen es que el negocio en el que se basa su actividad está en crisis, y no tiene futuro. El problema no es si el negocio de la vivienda lo gestiona el Ayuntamiento o lo gestiona Zumaia Lantzen.

Acto seguido se procede a la votación



Zumaiako Udala

2011IAKU0010

## PARTE RESOLUTIVA

Votos a favor: 6 (BILDU)

Votos en contra: 0

Abstenciones: 7 ( 5 EAJ-PNV ; 1 PSE-EE/PSOE; 1 ARALAR)

### **SE APRUEBA POR MAYORÍA SIMPLE LA CONCESIÓN DEL CRÉDITO A ZUMAIA LANTZEN POR PARTE DEL AYUNTAMIENTO,**

### **3.- APROBAR SI PROcede, LA MODIFICACIÓN DE PUESTOS DE LA RELACIÓN DE PUESTOS DE TRABAJO.**

El Sr. Iñaki Ostolaza, presidente de la Comisión de Personal, propone hacer algunos cambios en la RPT de 2009. Por un lado, de las tres plazas de trabajadoras domiciliarias que se recogen una va a quedar libre por jubilación, de modo que se propone la amortización de la misma. Por otro lado, en la RPT se recoge además de una plaza de técnico auxiliar de turismo y comercio, un puesto de auxiliar administrativo para la oficina de turismo, y lo que se propone es, que se amortice la plaza de auxiliar administrativo y en su lugar se cree otra de técnico auxiliar de turismo. Es decir, que en la RPT quedarían recogidas dos plazas de auxiliares técnicos de turismo y comercio. Se propone asimismo, que tanto esas dos plazas de técnico auxiliar de turismo y comercio, como el puesto de técnico auxiliar de cultura pasen del nivel doce al nivel nueve tal y como se recoge en el proceso de valoración. En último lugar, en vez de proponer un concurso-oposición libre para ocupar las dos plazas de oficial previstas, se propone dar la opción a los trabajadores de la plantilla para ocupar dichos puestos mediante una promoción interna.

Se pasa a votar;

## PARTE RESOLUTIVA

Votos a favor: 13 ( 6 BILDU; 5 EAJ-PNV ; 1 PSE-EE/PSOE; 1 ARALAR)

Votos en contra: 0

Abstenciones: 0

### **SE APRUEBA POR UNANIMIDAD LA MODIFICACIÓN DE LA RELACIÓN DE PUESTOS DE TRABAJO.**



**Zumaiako Udala**

2011IAKU0010

**4.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DE LAS BASES ESPECÍFICAS PARA LA CONCESIÓN  
DE AYUDAS ECONÓMICAS ZUMAIA.NET PARA LOS CLUBES Y ENTIDADES  
DEPORTIVAS SIN ÁNIMO DE LUCRO.**

El Sr. Iñaki Ostolaza, presidente de la Comisión de Deportes, ha manifestado que este tema que se presenta al pleno es puro trámite. Son las subvenciones de Zumaia.net, que están reguladas y cuyas condiciones especiales se tienen que aprobar en el pleno para que posteriormente sean publicadas en el boletín. Después de un plazo se pueden presentar las solicitudes. De modo que lo que se propone es el cumplimiento del trámite.

Se pasa a la votación

**PARTE RESOLUTIVA**

Votos a favor: 13 ( 6 BILDU; 5 EAJ-PNV; 1 PSE-EE/PSOE; 1 ARALAR)

Votos en contra: 0

Abstenciones: 0

**SE APRUEBAN POR UNANIMIDAD LAS BASES ESPECÍFICAS PARA LA CONCESIÓN  
DE AYUDAS ECONÓMICAS ZUMAIA.NET PARA LOS CLUBES Y ENTIDADES  
DEPORTIVAS SIN ÁNIMO DE LUCRO.**

No habiendo más temas que tratar, el alcalde-presidente da por finalizada la sesión cuando son las veinte horas diez minutos y yo el secretario, doy fe.